

LAUDORIO OHORE C7

Laudorio, ohore Jesus maiteari !
Laudorio, ohore orai eta beti ! (bis)



1 - Jauna, zu jatean,
Zutan gu bat izan :
Zorionik maitena.
Ai zer poza dudan,
Elgar maitatzean,
Gozatzera zu, Jauna.

2 - Maite zaitut maite :
Nahi nuke bete
Dena zutaz mundua.
Nitan bizi zaite,
Nihaur izan arte
Dena zutaratua.

3 - Goazen elgarrekin
Bihotz barnez berdin,
Denen jainkoratzeko.
Dugun indar egin
Kristo izan dadin
Diren guzien Jainko.

INGERU BATEK MARIARI

1/ Ingeru batek Mariari
Dio graziaz betea
Jaungoikoaren Semeari
Emanen diozu sortzea.

2/ Jainkoaren nahi saildua
Ni-baitan dadin egina
Izan nadien amatua
Bainan geldituz Birjina.

3/ Orduan Berbo Dibinoa
Gorputz batez da beztitzan
Oi, ontasun egiazkoa :
Jauna gurekin egoiten.

4/ Otoitz zazu zure Semea
Gure Ama amultsua
Izan dezagun fagorea
Ardiesteko zerua.

ZURE BEGIAK JESUS R 21

Zure begiak Jesus, nik ere banitu,
Itzalak eta herrak, nola ez barkatu,
Ditzadan ene lagunak besarkatu.

1 - Begien biziak argi egiten ditu ilunak
Begien biziak gezurretik jaltzen egia,
Begien biziak nola agertzen du maitasuna,
Begien biziak, zu, Jauna.

2 - Begien argia, xoratuz dabil, mundu ederraz,
Begien argiak hauts-petikan jaltzen pindarrak,
Begien argian, guk ikusten Ebanjelioa
Begien argia, zu, Jauna.

3 - Begien bideak zabaltzen ditu gure urratsak
Begien bideak, muga orenen hauts-errautsleak,
Begien bidea, zeru ate idekitzailea
Begien bidea, zu, Jauna.

Urte Santuaren ezaugarri berezia da *erromesaldia*, pertsona bakoitzak bere bizitzan egiten duen bidearen irudi baita. Bizitza erromesaldia da eta gizakia *viator* da, amestutako helmuga iritsi arte bere bidea egiten duen erromesa, alegia. Erromako nahiz beste toki bateko Ate Santura iristeko, erromesaldi bat egin beharko du bakoitzak, bere indarren arabera. Errukia ere iritsi beharreko helmuga dela eta horretarako konpromisoa eta sakrifizioa beharrezko direla adierazten du horrek. Erromesaldia, beraz, izan dadila bihotz-berritzeko eragingarri: Ate Santua zeharkatzean Jainkoaren errukiak besarka gaitzan utziko dugu, eta Aita gurekin errukitsu den bezala, gu ere besteekin errukitsu izateko konpromisoa hartuko dugu.

Jesus Jaunak adierazten dizkigu helmuga hori iristea bideratzen duten erromesaldiaren urratsak: «Ez gaitzetsi inor, eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu, eta ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri betea, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak» (Lk 6,37-38). Ez *gaitzetsi* eta ez *kondenatu* dio, lehenengo eta behin. Jainkoaren epaian erori nahi ez badu behintzat, ezin daiteke inor senidearen epaile bihurtu. Izan ere, gizakiek azalekoari begiratzen diote, egiten dituzten epaiekin; Aitak, berriz, barrura begiratzen du (.../...)

Frantses Aita Saindua. (Misericordias vultus 14. zenbakia).



LOIOLA 2016-VII-14
EUSKALDUNEN BEILA

ATE SAINDUAREN IRAGAITEA
EUKARIZTIA

117. SALMOA

Jaunari kanta, ona baita,
Amodioa betiko baitu betikoa.
Jainkozaleek, gora kanta :
« Amodioa betikoa du betikoa ».

Ate sailduak zabal neri,
Hetan sarturik, Jaunari dudan egin kantu.
Jainko-atea da bai hori,
Gizon zuzenek behar baitute hartan sartu.

Esker on eta kantu Zuri :
Entzun bainauzu bai eta eman salbamendu.
Zu zaitut Jainko, kantuz nago :
Zuri esker on, goresmen eta laudorio !

URTE SAINDUAREN HIMNOA

Misericordes sicut Pater, misericordes sicut Pater ! (bis)

1/ Eskerrak Aitari, ona baita, **in aeternum misericordia ejus.**
Bere zuhurtzian egin du mundua, **in aeternum misericordia ejus.**
Mendez mende Herriaren aintzindari, **in aeternum misericordia ejus.**
Bere haurren barkatzaile ta babesle, **in aeternum misericordia ejus.**

2/ Eskerrak Semeari, Herrien argiari, **in aeternum misericordia ejus.**
Maitatu gaitu, gizon bihotzez maitatu, **in aeternum misericordia ejus.**
Hartarik den dena, harena den dena, **in aeternum misericordia ejus.**
Gose ta egarri daudeneri, zabal bihotza, **in aeternum misericordia ejus.**

3/ Izpirituaren zazpi dohainak eska ditzagun, **in aeternum misericordia ejus.**
Ongi guzien sorburu, sosegu eztieta, **in aeternum misericordia ejus.**
Harek sustaturik, heda gozotasuna, **in aeternum misericordia ejus.**
Maitasuna betiere esperantza jarraikian, **in aeternum misericordia ejus.**

4/ Bakezko Jainkoari dugun eska bakea, **in aeternum misericordia ejus.**
Berri onaren beha dago lur guzia, **in aeternum misericordia ejus.**
Xumeen baitan bozkario ta barkamen, **in aeternum misericordia ejus.**
Zeru-lurrak oraidanik mende berri, **in aeternum misericordia ejus.**



AINZA ZERUETAN JAUNGOIKOARI

Eta bakea lurrean haren gogoko gizoneri.

Hain haundi ta eder zaitugulakotz, gora zu, benedikatua zu.

Gorespen zuri, ahuspez agur, eskerrak zuri.

Jainko Jauna, zeruko Errege,

Jaungoiko Aita, guziahalduna,

Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo.

Jainko Jauna, Jainkoaren bildots, Aitaren Seme.

Zuk kentzen duzu munduko bekatua, **urrikal Jauna.**

Zuk kentzen duzu munduko bekatua, **entzun gure deia.**

Aitaren eskuin-aldean jarririk zaude zu, **urrikal Jauna.**

Zu bakarrik Saindua, **Zu bakarrik Jauna,**

Zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu Kristo,

Izpiritu Sainduarekin, Jainko Aitaren argitan. Amen.

101. SALMOA

Jauna zerutik gure lurrerat behatu du.

Zu aldiz, Jauna, betierekotz Jaun bazaude :

Zure izena mendez mende.

Xuti zaite Zu : har Zion gainaz orai arta,

Urrikal zaiten ordu baita.

Zure gizonek haren harriak zenbat maite :

Hek ikustean min baitute.

Orduan handi zure izena munduari,

Zure ospea erregeri.

Zion mendia altxatzen duen egunean

Orduan Jauna zer ospean !

Dohakabeen deia entzuna izan baitu

Heien otoiiza ez ukatu.

Hau izkirioz emanen dute gerorako,

Jende berriek kantatzeko.

Hara bai nola zerutik Jauna den apaldu :

Gure lurrerat behatu du.

Lokarrietan zaudenen deiak entzun ditu,

Abantsu hilak berak piztu.

ALLELUIA A.102

Etor ni ganat, lan eta minek lehertuak,

Denak izanen baitzarezte nik altxatuak.



SINESTEN DUT A.10 Nizeokoa

Sinesten dut Jaungoiko bat bakarra.

Aita guziz ahaltsu, zeru-lurren Egile,

ageri diren eta ez diren guziena.

Sinesten dut Jaun bat bakarra, Jesu Kristo,

Jainkoaren Seme bakar,

mende guziak baino lehen Aita ganik sortua.

Jainkoa ganik Jainko, argitik argi,

egiazko Jainkoa ganik egiazko Jainko.

Sortua, ez egina, Aitaren izaite berekoa,

Haren bidez dira eginak gauza guziak.

Gu gizonen gatik, eta gu salbatzeko, jautsi zen zerutik.

Eta Izpiritu Sainduaren egitez,

Maria Birjina ganik gorputz harturik, gizon egin zen.

Pontzio Pilatoren menpean gu gatik

gurutzeratua izan zen, oinazetan hila eta hobiratua.

Hirugarren egunean piztu zen, Liburu Sainduak erran bezala,

Zerurat igan eta Aitaren eskuin aldean jarririk dago.

Aintzaz etorriko da berriz, biziak eta hilak jujatzerat,

Eta haren Erregetzak ez du azkenik izanen.

Sinesten dut Izpiritu Saindua,

Jaun eta bizi emaile, Aita ganik eta Semea ganik dena.

Aitarekin eta Semearekin batean

agur eta goresmen berbera

hartzten duena, eta profeten ahoz hitz egin zuena.

Sinesten dut Eliza : **bat, saindu, katoliko eta Apostoluena.**

Aitortzen dut bataio bakarra, bekatuak barkatzeko.

Igurikatzen du hilen piztea, eta datorren munduko bizia.

Amen.

Fededunen otoiiza : **Erakuts guri Jauna zure bihotz ona !**

SAINDU A.10-2

Saindu, saindu, saindua !

Diren guzien Jainko Jauna.

Zeru lurrak beterik dauzka zure distirak !

Hozana zeru gorenetan !

Benedikatua Jaunaren izenean datorrena.

Hozana zeru gorenetan !

GOSETS KANTUA

Sinestearen mixterioa goraki aitor dezagun :

Hil zinen, aintza Zuri, alleluia !

Piztu zira, allelu alleluia !

Zure zain gaude, alleluia !

Hunen bitartez C.42

AMEN ! A-MEN !

AGUR AINTZA JAINKOARI ! (bis)

Jaunaren Otoiiza A.8

Gure Aita zeruetan zirena

Saindu izan bedi zure izena

Etor bedi zure erreinua

Egin bedi zure nahia

Zeruan bezala lurrean ere

Emaguzu gaur egun huntako ogia

Barkatu gure zorrak

Guk ere gure zorduner

Barkatzen diegunaz geroz

Eta ez gu tentaldirat ereman

Bainan atera gaitzazu gaitzetik.

JAINKOAREN BILDOTSA A.10-2

Jainkoaren Bildotsa,

Zuk kentzen duzu munduko bekatua,

Urrikal Jauna ! (bis)

Jainkoaren Bildotsa,

Zuk kentzen duzu munduko bekatua,

emaguzu bakea !

